

# Egunerokotasuneko negoziazioak bikote parekideetan

**Amaia Agirre Miguélez**

**AFIT- Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko ikertzailea, UPV/EHU**

Artikulu honek euren burua bikote berdinaletzat dutenen inguruko ikerketa baten ondorio garrantzitsuenak jasotzen ditu. Zehazki, bikote-eredu horiek garatzen dituzten negoziazio-prozesuetara hurbilduko gara. Horrela, bikote-harreman parekideetan negoziazio eta egunerokotasuneko erabakiek betetzen duten papera eta horien garrantzia aztertuko ditugu. Horretarako, zaintza eta etxeko lanen, diruaren kudeaketaren eta maitasun erromantikoaren inguruan garatzen diren negoziatioetara hurbildu gara, besteak beste, metodologia kualitatibotik abiaturik. Ondorio nagusietako bat zera da, bikote horientzat parekidetasuna helburu argi bat da, baina, zenbait oztopo topatzen dira hura gauzatzeko momentuan. Parekidetasuna posible egiten ez duten oztopo horiek gainditzeko tresna eraginkorra bikotekideen artean gauzatu daitezkeen negoziazioak dira, eta horretaz asko kontziente baldin badira ere, ezarritako genero-rolak gainditzeko tresna bezala, gure gizartean nagusi den maitasun erromantikoaren ideiarekin talka egiten du.

**GAKO-HITZAK:** Bikote berdinzaleak · Feminismoa · Maitasun erromantikoa · Genero-rolak.

## **Everyday life negotiations and romantic love in egalitarian couples**

This article presents the main conclusions of a qualitative research that analyzed the ways in which negotiations are managed inside self-defined egalitarian couples. In this way we analyze the role of everyday life decisions and negotiations in this egalitarian couples. Different aspects will be analyzed: negotiations on distribution of housework and care work, economic management and romantic love, among other aspects. One of the main conclusions is that gender equality is a goal for this type of couples but there are major obstacles to its realization. A way to overcome the obstacles of gender roles is the negotiation itself and these couples are aware of it, but this idea is opposed to the romantic love ideal.

**KEY WORDS:** Egalitarian couples · Feminism · Romantic love · Gender roles.

*Jasotze data:* 2014-12-19    *Onartze data:* 2015-03-23

## 1. Sarrera

Esparru pribatuak, oro har, eta bikote-harremanen eta maitasun erromantikoaren esparruak, bereziki, parekidetasuna gauzatzeko oztopo nabarmenak dituzte. Espazio horiek pribatu gisa definitu diren heinean, horien inguruko politika publiko, diskurtso sozial nahiz ikerketa nahikorik ez da garatu, eta horien barruan gauzatzen diren genero-harreman ez-berdinak ikusezinak izan dira denbora luzez (Langford, 1999; Subirats eta Castells, 2007). Egile batzuek berdintasunaren ispiatzea esaten diote fenomeno horri (García de León, 1994; Valcárcel, 2008), parekidetasun instituzionalarekin batera berdintasuna lortu ez den beste esparru asko ezkutuan geratzen baitira. Hau da, diskurtso parekideek, kasu batzuetan, «espazio pribatuan» gauzatzen diren desberdintasunak eta izaten diren botere-harremanak modu eraginkorrean ezkutatu dituzte.

Hori dela-eta, ideologia feminista edota parekidea partekatzen duten bikoteen barnean gauzatzen diren negoziazio-prozesuak dira ikergai lan honetan, zeren genero-harremanen eta horien azpian dauden botere-harremanen adierazpen argia baitira. Zentzu horretan, negoziazio-prozesu horietara hurbiltzean eta horien inguruan gauzatzen diren tentsio, gatazka, adostasun nahiz desadostasunetara gerturatzean, genero-harremanak parekideak izateko dauden oztopoetara hurbiltzen gara.

Orain gutxi arte, negoziazioak bikote-harremanen espaziotik at zeudela uste zen (Coria, 1997) eta, hori dela-eta, ez dira behar bezainbeste ikertu. Aukeratutako bikote-harreman mota horiek, euren harremana parekide gisa definitzen duten eta genero-berdintasunaren garrantziaz kontziente diren heinean, beste bikote-harreman batzuek baino berdintasunerako joera handiagoa dute.

Hala ere, gaur egungo gizartean nagusi den maitasun erromantikoaren ideologiarekin (Esteban, 2011; Herrera, 2011) bat ez datozen praktikak aurrera eramatean —hala nola negoziatzea, banakotasuna berrestea, tabu gisa definiturik dauden gaiez mintzatzea eta abar— kontraesanak, gatazkak eta birplanteamenduak sortzen dira bikote horietan, nahiz eta hasiera batean berdintasunaren aldeko posizio batetik abiatu. Beraz, berdintasunaren defentsa ideologiko horretatik eguneroko praktiketarako jauzian dauden oztopoetara hurbiltzea ezinbesteko eginkizuna da.

Aurreko mendeekin alderatuz gero, badirudi Mendebaldeko gizarteetan aurrez zehazturiko genero-rolen aldaketak gauzatzen ari direla (Beck eta Beck-Gernsheim, 2001: 17), eta, hori dela-eta, rol horien negoziatorako espazioa gero eta handiagoa dela familien eta bikoteen barnean (Dema, 2004; Royo, 2004, 2011). Lotura afektiboetan gertatzen ari diren aldaketek familiaren eta bikote-harremanaren barneko banakotasun handiagoa posible egiten omen dute, eta, era berean, negoziatorako aukerak areagotzen (Cea, 2007).

Negoziazio-prozesu horietara hurbiltzean, prozesu horien azpitik dauden bizipen, kontzeptu eta ideiak ezagutzeko aukera izango dugu. Bikote-harreman eredu hauek gizartean gauzatzen ari diren aldaketen gako esanguratsuenak eman diezazkigukete; eta, horrekin batera, modu zuzenean bikote-harremanetan izaten ari diren aldaketetara ere hurbilduko ginanteke. Horrela, ekintzei zentzua ematen

dieten diskurtsoak aztertzea izan da ikerketa honen funtsezko eginkizuna; hau da, jarduerak garatzen diren marko interpretatiboetan murgiltzea eta horiek aztertzea.

Artikulu honetan erabiltzen den maitasun erromantikoaren kontzeptua Soziologian ikergai berria dela esan ahal dugu, nahiz eta azkeneko urteetan autore esanguratsuak egon ikertu dutenak (Bourdieu, 2000; Beck eta Beck-Gersheim, 2001; Bauman, 2008; Lhumann, 2008...). Zehazki, Genero Ikasketetatik planteatutako kontzeptua landu da ikerketa honetan eta sakoneko elkarrizketetan horri buruz galdetu zaie. Hain zuzen ere, Estebanek (2011) *maitasun-pentsamendua* izendatu du eta horrela laburbiltzen du:

Maitasunaren inguruko sinbolo, nozio eta teoria multzo artikulatua litzateke, espazio sozial eta instituzional guztietan irazkorra dena eta pertsonen praktikan ondorio zuzenak dituena. Hain zuzen, genero-, klase- eta etnia-harreman ezberdinak egituratzen dituena<sup>1</sup> (Esteban, 2011: 21).

Hainbat autorek planteatu duten moduan, bikote-harremanaren ideologia nagusi den gizarte batean bizi gara, zeinek harreman sozial eta afektiboen erdigunean kokatzen duen bikote-harremana (Langford, 1999; Coria, 2004; Lagarde, 2005; Esteban, 2011), eta, horren bitartez, botere-harreman ez-parekideak ezartzen dira. Prozesu horrek, era berean, ondorio desberdinak edukiko lituzke emakumeentzat eta gizonentzat (Jónasdóttir, 1993), eta ondorio horietara hurbiltzeko asmoarekin burutu da ikerketa hau, hain zuzen ere.

## 2. Ikerketaren diseinu metodologikoa

Ikerketa hau<sup>2</sup> tesi bat egiteko planteatu zen, eta 2011 eta 2014 urteen artean egin da. Erabili den metodologia kualitatiboa izan da, hein handi batean, helburu nagusia bikote parekideen diskurtsoak aztertzea baita; azken batez, errealitate sozialaren dimentsio kualitatiboa subjektu sozialek sortutako diskurtsoetan datza (Beltrán in: García, Ibáñez eta Alvira, 2000: 46). Era horretan, interesatzen zaiguna elkarrizketatutako pertsonen esperientzian murgiltzea izango litzateke, haien hitzetatik eratorritzen diren balio, sinesmen, pertzepzio eta esanahietara ahalik eta gehien hurbilduz.

Genero-sistemak pertsona horien bizitzan operatzeko moduetan sakontzea izan da ikerketa honen helburua, zehazki, bikote-harremanei dagokienez. Metodologia kualitatiboaren bidez, errealitate sozialaren, eraikia den heinean, dimentsio sinbolikoa azter dezakegu eta, era berean, agenteek beren jardunei ematen dieten zentzuan sakondu ahal dugu. Hori dela-eta, ikerketa honetarako haien bizipenak eta berauek inguratzen dituzten erreferentzia sinbolikoak kontuan hartu dira.

Hain zuzen, ikertu diren negoziazioak hainbat eremutan garatzen dira, besteak beste, baliabide material eta ekonomikoen kudeaketan (jabetzak, soldata, gastuak...), etxeko zein zaintza-lanetan (seme-alabak hezteko eta zaintzeko moduak eta etxeko lanak), lan munduari lotutako bizipen eta interesetan (prestakuntza, ikasketak...),

1. Gaztelaniaz originalean, itzulpen propioa.

2. Mari Luz Esteban Galarza andere doktoreak zuzendutako doktore-tesia da, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetzaren diru-laguntza jaso duena.

bikotearen konfigurazioari berari eragiten diotenetan (elkarbizitza, egoera zibila, monogamia, bikote-eredua...) edota, azkenik, bikotetik kanpoko harremanekin eta ekintzekin lotutakoetan (denbora propioa/bikote-denbora, interesak, hobbyak...). Interesgune nagusia, hortaz, erabakiak hartzeko prozesua bera izango da, eta prozesu horretan sor daitezkeen estrategia, oztopo eta aurrerapausoak. Era horretan, negoziazio-prozesu horiek, bikote-eredu tradizionalekin<sup>3</sup> konparatuz, jarraipen nahiz aldaketen adierazle esanguratsuak izango dira, bai maila ideologikoan baita praktikokoan ere.

Beraz, planteamendu kualitatibotik abiatu gara eta, zehazki, sakoneko elkarrizketak burutu dira. Erdi-egituratutako galdetegia erabili da eta 15 bikotetako pertsonak elkarrizketatu dira bakarkako<sup>4</sup> solasaldietan. Partaideak 25-50 urte bitartekoak dira eta haien harremanek 3 urte eta 25 urte arteko iraupena daukate. Horrekin batera, nahitaezkoa zen euren burua bikote parekidetzat definitzea<sup>5</sup>. Elkarrizketak Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko biztanleekin burutu dira hiru probintzia horietan. Hurrengo kapituluetan elkarrizketetako pasarteak aurkezten dira eta ondoan elkarrizketatuaren hurrengo informazio hau jarri da: fikziozko izena, adina eta zer harreman daukan elkarrizketaren momentuan. Elkarrizketak 2011 eta 2012 urteetan burutu dira.

Elkarrizketak aztertzeko jarraitutako irizpidea diskurtsoaren analisia izan da. Horrela, sakoneko elkarrizketak grabatu ziren eta literalki transkribatu. Ostean, elkarrizketa bakoitzaren pasarte esanguratsuenak antolatu ziren elkarrizketaren egiturari jarraituz eta gehien errepikatzen ziren ideia, adierazpen, sentimenduak... jaso eta sakon aztertu ziren.

### 3. Negoziazioen garrantzia bikote berdinzaleetan

Bikotearen barruan gertatzen diren negoziazio esplizituek nahiz inplizituek ez dira oso kontziente gure elkarrizketatu gehienak. Are gehiago, gai hau oso gutxitan agertu da modu espontaneoan elkarrizketetan. Zuzenean galdetu zaienean, aldiz, negoziatorik ez dagoela diote askok, erabaki zehatzak baizik: arazo, ideia, praktika edota desadostasunen bat sortzen denean erabakitzen dute zer eta nola egin. Hori dela-eta, orokorrean ez dute negoziazioen existentziaren kontzientziarik eta, beraz, ez dituzte modu «zuzenean» praktikatzan:

Ba dena egiten dugulako... nik zerbait egiten badut, berak beste bat egingo du. Bai... ez dago adostuta. De facto ez da gertatzen nik gauza bat egin behar dudarik eta berak beste bat (3.1. Itsaso, 28, harreman heterosexuala).<sup>6</sup>

3. Sexuan oinarrituriko rolen banaketa egiten duten bikote gisa definiturik.

4. Guztira 30 elkarrizketa izan behar ziren baina azkenean 27 egin dira, azkeneko momentuan 3 pertsonak erabaki dutelako parte ez hartzea.

5. Euren burua eta bikote-harremana parekidetzat definitzea izan da irizpide nagusia pertsona horiek aukeratzeko momentuan. Hala ere, bestelako aldagaiak ere betetzen zituzten, printzipioz, bikote-harremana parekideagoa ezartzeko abiapuntua izan daitezkeenek (Dema, 2004): biek enplegua zuten eta bikote heterosexualen emakumeek posizio sozioekonomiko hobea zeukaten.

6. Elkarrizketak gaztelaniaz nahiz euskaraz egin dira. Gaztelaniaz egindako elkarrizketen aipuak euskaratu dira, baina ez da beharrezkoa ikusi azaltzea aipu bakoitzaren jatorrizko hizkuntza, diskurtsoetan ez baita hizkuntza-aldagaiaren araberako desberdintasunik topatu.

Elkarrizketa gutxi batzuetan negoziazio hitza modu espontaneoan agertu bada ere, elkarrizketatuen gehiengoak sinonimoak erabiltzen ditu, esaterako, maiz agertzen dena «hitz egitea» da. Hau da, negoziazio hitzaren erabilera ekiditen da neurri handi batean, nahiz eta errealitate berari erreferentzia egin nahi dioten:

Maila horretan nik uste dut nahiko parekatua dela arlo guztietan, nik uste dut, gainera asko saiatzen garela hitz egiten horren inguruan, eta nik uste dut gustatzen ez zaigun jarrera bat, ez da zuzentzen, baina bueno, bai saiatzen bestearen ikuspuntua ikusten eta negoziaketa batera iristen, ez? (8.1. Joseba, 31, harreman heterosexuala).

Aurreko aipuan ikusten da nola negoziazio hitza modu espontaneoan ateratzen den, baina jarraian bere burua zuzentzen du:

Esan dut negoziatu, baina ez dugu asko negoziatu. Batzuetan ere egoerak eramaten zaituelako, baina bueno, nik uste dut inportanteak diren gauzetan, bai saiatzen garela hitz egiten gauzak, orokorrean (8.1. Joseba, 31, harreman heterosexuala).

Irakurri dugun aipua beste elkarrizketa askoren isla da, non negoziazio hitza zerbait negatiboa izango balitz bezala ulertzen den. Oro har, bikote-harremanaren esparruan konnotazio negatiboak dituen kontzeptua da, eta bikotearen esparrutik at geratzen den zerbait dela ulertzen dute, beste espazioetarako erabil daitekeen prozedura, ez aitzitik bikotearen barruan. Negoziazioak agerian uzten du bikoteetan segurutzat ematen den adostasuna ez dela beti horrelakoa izaten. Era berean, ikusarazten du adostasuna ez dela zerbait espontaneoa, baizik eta horretara iristeko bide batzuk beharrezkoak direla. Horrekin batera, bikotekideen arteko adostasun falta hori plazaratzeak gure gizartean indarrean dagoen maitasun erromantikoaren ideia kolokan jartzen du (Dema, 2004); hori dela-eta, kasu batzuetan negoziazio horiek «ezkututzen» saiatzen dira.

Negoziazioa, batetik, eta «modu naturalean» ateratzen dena, bestetik, kontrajartzen ditu beste elkarrizketatu honek, nahiz eta onartzen duen ez dela oso kontziente bere bikote-harremanean gauzatzen diren erabakitze-prozesuez:

Ez dakit, nik uste dut ateratzen dela, ez dakit, igual ez naiz kontziente, igual ez dakit, ez dut planteatu, baina, normalean hitz egiten dugu lasai. Zer edo zer egin behar badugu esaten dugu, ze benga, hau edo bestea, ez daukat gogoia edo bai honetarako... (14.2. Iratxe, 30, harreman homosexuala).

Aldiz, badago elkarrizketatuen artean beste «bikote-eredu» bat, ikerketa honetan gutxiengoa izan dena, negoziazioak ezinbestekoak direla uste duena, eta hori modu zuzenean planteatzen duena, negoziazioen eraginkortasunaz eta helburuez erabat kontziente izanik:

Ba ni behin hitzaldi batean egon nintzen eta ni gauza batek izugarri harritu ninduen, ulertu dugulako sadomasokismoa dela kolpeak eta ez dakit zer, baina bueno, hori ere bada, baina niri atentzia eman zidan gauza batek. Noski, zuri lotzen badizkizute hankak eta eskuak eta dena eta hor immobilizatuta bazaude, hor kodigo bat behar duzula, beste partaideekin mugak non dauden jakinarazteko, ezta? Hori negoziazioaren bitartez egin behar da, hori da egin behar den lehenengo gauza. Nik

uste dut hori harremanetan ere eman behar dela, eta gure harremanean bai eman dela. Hau da, negoziatu eta bakoitza momentu guztietan eroso egotea. Zer nahi duen, zer behar duen eta gauzak nola egin nahi dituen, hori eztabaidatu, inori minik egin gabe, bakoitzak mugak jakin, zureak jakinarazi eta horretan negoziazio hori (11.2. Iñaki, 30, harreman homosexuala).

Aurreko berriemailea gainontzeko elkarrizketatuengandik ezberdintzen da hainbat zentzutan. Adibidez, eta nahiz eta elkarrizketatuen artean beste militante feminista eta bestelako ekintzaile politiko batzuk egon, parekidetasuna bilatzen duten mugimenduetako ekintzaileak diren bikote bakarra da. Hori dela-eta, nolabaiteko kontzientzia politiko landuagoa eta jorratzen gauden gaien inguruko prestakuntza espezifikoa dute. Horrekin batera, bikote-harremanaren eta horrek dakarrenaren inguruko gogoeta handia egin dutela nabaria da. Zehazki, negoziazioa mugak jartzearekin erlazionatzen du elkarrizketatu horrek, mugen behararekin. Era horretan, esplizitatutako negoziazioak eta akordioak egonez gero, harreman sendoagoa eraikitzen dela uste du.

Aurreko bikotearekin batera, negoziazioaren beharra azpimarratu duten beste gutxi batzuk ere badaude, esan bezala: «Ba hitz egiten dugu asko eta negoziatzen dugu asko, eta gero ere da inizatiba ere ez? Ba gaur nahi dut nik, erosketak edo egitera, ba joango naiz ni?» (8.2. June, 31, harreman heterosexuala).

Horrela, bikote-dinamikaren inguruko hausnarketa handiagoa dagoen kasuetan negoziazio eta adostasun kontzeptuak gehiago atera dira, argi baitaukate negoziazioak daudela eta beharrezkoak direla. Hau da, parekidetasunaren beharraz kontzienteago diren eta kontzientzia feminista garatuagoa duten bikoteen artean, errazagoa da negoziazioaren garrantziaz jabetzen diren pertsonak topatzea eta, horren ondorioz, negoziazioak modu aktiboan planteatzen dituzte. Hala ere, negoziazio horiek nola burutzen eta planteatzen diren ez daukate hain argi.

«Not worth mentioning: The implicit and explicit nature of decision-making about the division of paid and domestic work» (Wiesmann *et al.*, 2009) izenburuko ikerketak azaltzen duen bezala, negoziazioak funtsezkoak dira bikote baten genero-harremanak ezartzeko edota birkonfiguratzeko. Negoziazio horiek ez gauzatzeak eta, horren ondorioz, erabakiak ez esplizitatzeak, rolen banaketa generizatuan sakontzea dakar; eta generoan oinarrituriko lanen banaketa tradizionalagoa izango da. Negoziazio ireki eta esplizituagoak aurrera eramateak, aldiz, harreman paritarioagoak ahalbidetuko lituzke. Hala ere, horrek ez du esan nahi negoziazioak egonez gero bikote paritarioa lortuko denik, baina bai nahitaezko baldintza dela parekidetasuna lortu nahi bada.

Aurretik aipatu bezala, negoziazio hitzaren orde, akordioez, adostasunaz edota erabakiak hartzeaz hitz egiten dute berriemaileek. Horrela, negoziatzeak dakarren alde positiboan enfasia jarri dute, sor daitezkeen egoera gatazkatsuak gutxietsiz. Hala ere, ezer negoziatzen ez dutela baieztatzen dutenak ere badaude. Kasu horietan, negoziazio hitza gatazkak egotearekin lotzen da, negoziazioa desiragarria ez dela gehituz. Esaterako, etxeko lanen banaketa adibide gisa erabiltzen du, akordioak naturalki hartzen dituztela baieztatzeko:

Horrela sortu delako, horrela egiten joan garelako, ez bakoitzak rol hori bereganatu duelako, baizik eta... ez dugu negoziatu, modu naturalean sortu da, martxan erabakitzen dugu, egun bakoitzaren arabera... ez, ez dugu horren inguruan hitz egin (1.2. Libe, 29, harreman homosexuala).

Kasu askotan, negoziazioa ez da bikote-harremanen espazioarekin erlazionatzen, agerian uzten baititu bertan gauzatzen diren botere-harremanak eta, antza, espazio horretatik at dauden dinamikak direla iruditzen zaie. Are gehiago, negoziazioen ondorioz suerta daitezkeen balizko gatazkak ez datoz bat zabaldua dagoen maitasun erromantikoaren idealarekin. Hori dela-eta, azkeneko testigantzan «hitz egin» kontzeptua erabiltzen hasten da, nahiz eta negoziazio hitza erabili bukaeran, baina argituz arazorik gabe egiten den prozesua dela. Kasu horretan, negoziatu eta hitz egin sinonimotzat hartu ditu berriemaileak, baina terminoek dituzten konnotazio desberdinez jabetu da.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago negoziazioak esplizitatzeko esparru pribilegiatua etxeko lanen eta zaintza-lanen banaketa dela, modu horretara izendatu ez arren, jarraian ikus daitezkeen moduan. Hau da, ezbairik gabe, negoziazioaz edota erabakiak hartzearen inguruan hitz egitean gailentzen den gaia da:

Bai negoziatu ohi dugula. Normalean gustu pertsonalak hartzen ditugu irizpide bezala, niri harrikoa egitea hautsa kentzea baino gehiago gustatzen zait, ba niri ez dakit zer... hitz egiten dugu bestearen intentzio ona suposatuztat harturik eta ez badugu akordioak lortzen, ba bakoitzak bere iritzia inposatzen saiatzen da (6.2. Amagoia, 28, harreman heterosexuala).

Bikote horrek, negoziazioa aurrera eramatean, gustu pertsonalaren irizpidea erabiltzen du, eta, negoziazioa posible ez denean, bakoitzaren irizpidea inposatzeko saiakera dator. «Gustu pertsonal»en argudioa, rolen banaketa generizatua legitimatzeko erabiltzen da maiz eta banaketa desorekatuak ikusarazten ditu.

Negoziazioak planteatzerakoan inizatiba zeinek hartzen duen galdetzean, orokortzea ezinezkoa izanik ere, kasu askotan momentuaren eta gaiaren araberkoa dela esaten dute elkarrizketatuek. Hala ere, salbuespenak salbuespen, emakumeek uste dute eurek gehiagotan mahaigaineratzen dutela negoziazioaren beharra.

Elkarrizketatutako emakumeek, oro har, inizatiba dutenak direla uste dute, beraz. Hori izan daiteke, Demak (2004) dioen moduan, gizonezkoei atxikitako ezaugarri bat, inizatibarena, emakumeek praktikatzean, gaindimentsionaturik agertzen delako. Hala ere, etxeko lanen eta zaintza-lanen inguruan adostasun batera heldu behar denean, emakumeak izan ohi dira gaia planteatzen dutenak, emakumeak lan horien erantzule nagusiak sentitzen baitira eta, hori dela-eta, baita lan horren banaketaren erantzuleak ere.

Negoziazioan erabiltzen diren estrategiez galdetzean, berriemaileek ez dituzte halako prozedurak azaldu. Negoziazioez oso kontziente ez badira, are gutxiago negoziazio horiek gauzatzeko egon daitezkeen estrategiez.

Negoziazio kontzienteak egon ez direnean ere akordioak hartu direla jabetzen dira zenbait elkarrizketatu, baina ez dakite ondo identifikatzen zein izan den horretara

iristeko hartu duten bidea; izan ere, batzuen susmoa da zerbait inplizitua izan dela: «Eta ez da izan hitzezko akordio bat, ez dakit nola egiten ditugun akordioak, baina bai» (12.1. Mireia, 34, harreman heterosexuala).

Adostasun eta negoziazioak hartzea baino gehiago, bestearekin sentibera izatea defendatzen du beste elkarrizketatu batek. Euren bikotean ez dutela akordio handirik hartzen eta adostasunak eguneroko praktikaren eta akordio txikien ondorio direla adierazten du. Horrela, inplizituki hartutako akordioak, edota akordiorik hartu ez den egoera ugari, betikotzeko indarra daukate; izan ere, horri buruz inork ez badu hitz egiten, inork ez badu gaia mahaigaineratzen, gauzek bere horretan irauteko aukerak handiak dira. Hau da, hasiera batean unean uneko akordioa izan zitekeena, edo akordio inplizitu baten ondorioz erabakitakoa, denbora aurrera joan ahala eta ageriko negoziatorik ez badago, betiko bilakatzeko arriskua agerikoa da:

Horretan ez dugu adostu behar, hilabetean, nik hau, nik ez dakit zer... sensibleak gera, adosten dugu baina igual egun bat lehenago edo momentuan bertan edo... baino hori, kontziente izanda... (13.1. Maider, 32, harreman heterosexuala).

Horrekin batera, erabaki inplizituek ere kontziente da elkarrizketatu hau, honako hitz hauekin: «Askotan iruditzen zait ere ados gaudela baina hitz egin gabe...» (13.1. Maider, 32, harreman heterosexuala). Beste honek ere, erabaki inplizituak hartu behar direnean, bikotekidearekin duen konplizitatea azpimarratzen du. Era horretan, bikoteak dituen berezko kodeak irakurtzeko gaitasuna azaltzen du:

Gero hor badaude kode batzuk, adosten ez direnak baina inplizituki adostuak daudenak, ez dakit nola esan, aprobazioa hori ez da ezer esan behar. Zuk badakizu besteak, segun eta zer jarrera daukan, onartzen duen egiten ari zarena, edo ez, edo kontrakoa den, baina ez adostuak, edo behintzat ez zuzenean esanda. Igual gauza gehienak dira inplizituak, adosten dira baina... (15.1. Laura, 44, harreman homosexuala).

Aurreko aipuan ikus daiteke kontzienteki adostua denaren eta ez denaren arteko muga fina dela eta, oro har, elkarrizketatuek ez dutela oso argi nola gauzatzen diren prozesuok. Esan liteke, beraz, bizitzako beste esparruetan ez bezala, bikote-harremanen barruan ez direla negoziatorako prozedura propioak garatzen; eta horrek zailtzen duela, era berean, desadostasunak, akordioak eta gatatzak bideratzea. Inplizituaren eta esplizituaren arteko mugak, halaber, bikote parekideagoa lortzea zailtzen du, esan bezala; izan ere, inplizituki hartutako erabakiak birplanteatzea askoz zailagoa da eta horrek generoan oinarrituriko rolen banaketa errazten du. Hau da, errazagoa gertatzen da gizartean indarrean dauden genero-rolak bikotearen dinamikan islatzea negoziatzen ez diren gaitan, negoziatzen direnetan baino.

#### **4. Akordioen eta desadostasunen kudeaketa**

Behin negoziazioen gaia aztertu ostean, prozesu hauekin bat datozen gatazka, desadostasun eta akordioei heldukodiegua, akordioak eta desadostasunak txanponaren bi aldeak baitira. Negoziazioaz hitz egitean, oro har, arazoak edota desadostasunak plazaratzen ez direla ikusi dugu, edo aipatzekotan, leuntzeko joera dagoela; izan ere, bikotearen batasuna kolokan jar lezakeen zerbait da gehientzat, bikotearen



idealarekin apurtzen duena. Hala ere, gai horri buruz zuzenean galdetzen zaienean, arazoak eta desadostasunak egon badaudela argi utzi dute. Arazoak ekidinezinak direlako bikote-harremanetan, eta horiek gainditzeko, oro har, elkarrizketan enfasia jarri dute. Bikotearen barruan gertatzen den elkarrizketa litzateke, beraz, funtsezko elementua erabakiak hartu ahal izateko. Bikote-harremanetan emandako aldatetek negoziazio eta akordioak modu irekiagoan ematea ahalbidetzen dute. Era berean, negoziazioen agerpenak gatazkak eta desadostasunak areagotzea dakar. Hori dela-eta, askotan negoziazioak ekiditen dira, norgehiagoka hori gerta ez dadin. Hortaz, errealitate paradoxiko baten aurrean gaude. Alde batetik, adostu beharreko gai gehiago daude, bikote-harremanean jada arauturiko bide bakarra ez baitago (Beck eta Beck-Gersheim, 2001), eta horrek beharrezko egiten duelako negoziazioak izatea. Baina beste alde batetik, negoziazioak berak desadostasunak esplizitatzea ekar dezake eta, neurri batean, gatazkak areagotzea. Beraz, negoziatorako ahalmena garatzearekin batera, gatazkak areagotzen dira, eta, horrek, nolabait, negoziazioaren inguruan dagoen iritzia baldintza dezake. Hots, desadostasunak agertzeak etorkizuneko balizko negoziazioen indargabetzea ekar dezake, gerora etorriko diren gatazkak ekiditeko modu gisa, alegia.

Esplizitatzen ez den desadostasuna modu gatazkatsuan bizi dezake bikotekide batek, bestearentzat arazorik ekartzen ez duen bitartean. Esaterako, elkarrizketatutako bi emakumek gatazka batzuk aipatu dituzte; baina haien bikotekideekin izandako elkarrizketetan, aldiz, ez da horrelakorik agertu. Hau da, bikotekideari eragiten dioten gatazkak bakarka bizitzea posible da.

Harremanaren barruan gauzatzen diren negoziazio-prozesu horietan, oro har, ez dira estrategia zehatzak erabiltzen, elkarrizketatuen esanetan. Oso kasu gutxitan dira kontziente abian jarri dituzten estrategiez. Askotan, erabilitako estrategia nagusia izaten da gatazkek sortzen dituzten gaiei buruz ez hitz egitea, norgehiagoka ekiditeko modu gisa. Hala ere, ez negoziatzeak gatazken areagotzea ekar dezake, eta arazoak pilatu.

Gatazken aurrean portaera desberdina mantentzeak gaizki-ulertuak sor ditzake. Hala ere, elkarrizketatuak arazoak garaiz konpontzearen alde agertu dira, oro har, arazoak handitzea saihesteko asmoz, hurrengoan ikus dezakegun moduan:

Bola handi bat egin aurretik, hitz egiten ditugu gauzak, ez dugu inoiz uzten gauza bat gehiegi puzten, ze badakigu, guretzako kaltegarria dela. Orduan... kosta dakizuke gehiago gai bat ateratzea edo bestea, ba bai, baina bueno, azkenean ateratzen da (8.1. Joseba, 31, harreman heterosexuala).

Hala ere, lehenbailehen arazoak mahaigaineratzea desiragarriena bada ere elkarrizketatuentzat, esan bezala, aldi berean arazoez ez hitz egitea ere behin baino gehiagotan agertu den estrategia da. Horrela, konfrontazioa ekiditen da baina, era berean, ez da konponbiderik bilatzen eta ez aurrera ez atzera egoera nagusitzen da.

Oro har, bikote heterosexualetan dauden emakumeek adierazten dute gatazkez gizonak gutxiago hitz egiten dutela. Elkarrizketa horietan jasotakoa, beraz, ez dator bat egile askok formulatzen dutenarekin: emakumeek, oro har, konfrontazioa saihesten dutela (Valcárcel, 1997; Dema, 2004; Wiesmann *et al.*,

2008). Esan bezala, gure kasuan ez da horrelakorik ikusi, konfrontazioa bilatzen baitute emakumeek gizonetako baino neurri handiago batean, eta hori laginaren berezko ezaugarriengatik izan daiteke<sup>7</sup>. Horrekin batera, Hitek (1988) aipatzen du konfrontazioaren bitartez «benetako komunikazioa» bilatzen dutela emakumeek; eta badirudi horrelako zerbait gertatzen dela gure elkarrizketatuen artean. Hala ere, konfrontazio soilak ez du esan nahi *status quo*a aldatuko denik, horretarako bikotekide biek agertu behar baitute prest eta, kasu honetan, badirudi gizonetakoak uzkurragoak direla.

Era horretan, desadostasunak gehien kaleratzen dituztenak harremanaren barruan gauzak aldatu nahi dituztenak lirateke. Desadostasun horiek gauzak aldatzeko saiakera gisa mahaigaineratzen dira; eta, harremanaren *status quo*a mantendu nahi duenak, aldiz, desadostasunak ez kaleratzearekin batera, negoziatioetarako erreserba handiagoak ditu, aurretik ikusi bezala. Horrela, negoziatu nahi denaren eta nahi ez denaren arteko gatazka ere sor liteke; eta gaiaz ez hitz egiteak, berriz ere, funtsezko papera jokatzen du hemen. Negozioa oztopatzeko erabiltzen diren estrategien artean, gaiaz ez hitz egitea nabarmentzen da, isiluneen erabilera alegia:

Nik planteatzen ditut gauzak normalean, askotan iruditzen zait nik esaten ez badut ez duela inork esango, nik bultzatzen dut bera hitz egitera, beragatik izango balitz askoz gutxiago hitz egingo genuke, baina ez zaio axola edo ez du hitz egin nahi... ez dakit oso ondo zer den (6.2. Amagoia, 28 urte, harreman heterosexuala).

Aitzitik, haren bikotekideak ez du horrela ikusten:

Nik uste dut ondo negoziatzen dugula, hitz egitea asko gustatzen zaigu, orokorrean, eta ez daukagula arazo berezirik horretarako, agian gairen batek arazo handiagoa suposatzen badu... baina bestela ez (6.1. Eki, 29 urte, harreman heterosexuala).

Bikote heterosexualetan, oro har, aldaketarako nahi handiagoa erakusten dutenak emakumeak dira; gizonak, berriz, bikotearen martxarekin konformeago daude eta, batzuetan, ez dira negoziatioetarako prest agertzen. Izan ere, negoziatioak haien posizio menderatzailea ahuldu lezake. Emakumeek, aldiz, bikote-harremanaren aldaketarako prest agertzen diren neurrian, negoziatio-prozesuetan indar handiagoa jartzen dute.

Negozioetarako estrategiak aipatu diren kasu bakanetan, amore ematearen garrantzia azpimarratu da. Betiere, amore emate horri mugak jarri eta nolabaiteko oreka mantenduz. Hala ere, hurrengo elkarrizketatu honentzat, esaterako, oso garrantzitsua da amore ematekotan norberak nahi izatea, egiten den kontzesioaz kontziente izanik, baina gerora aurpegiatu gabe:

Bai amore eman dudala asko, baina pozik, desberdina da zuk nahi duzulako egiten baduzu edo nahi gabe eta beste pertsonari gero aurpegiatu. Nik ere erabakiarekin gustura egon behar dut, beste pertsonagatik egin dut baina nik nahi nuelako, hori jakitea oso inportantea da (3.1. Itsaso, 28 urte, harreman heterosexuala).

---

7. Alegia, berdinzaletzat dute euren burua eta bikotekideen estatus sozioekonomikoa oso antzekoa da kasu gehienetan, horrela ez den kasuetan, emakumeek altuagoa daukate.

Elkarrizketatu batek baino gehiagok aipatu du, harremana aurrera joan ahala, gatazken kopurua txikituz doala. Zenbat eta elkar hobeto ezagutu, orduan eta errazago konpontzen dira sortzen diren gatazkek. Edo hasiera batean gatazkek zekartzaten gaiak, gerora ez direla horrela bizitzen adierazten dute, etsi egiten delako edota bestelako irtenbideren bat bilatzen delako. Oro har, elkarrizketatuek uste dute elkar ondo ezagutzea garrantzitsua dela gatazka handienak saihesteko, arazoak hobeto kudeatzen baitira bestearen nahiak, gustuak, iritziak eta abarrak ondo ezagutuz gero.

Aurretik izandako beste harremanek gauzak erraz ditzakete, aurretik beste bikotekideekin izandako gatazkez ikasten baita. Hau da, bakoitzak zer nahi duen jakinez gero, gatazkek gutxituz doaz. Zentzu horretan, arazoei irtenbideak bilatzeko aukeren artean, konponbide txikiak eta sinpleak egon daitezke eguneroko elkarbizitza hobetzeko:

Orain jada ez, agian lehenago gehiago eztabaidatzen genuen... nik, adibidez, gorroto nuen futbola jarrita izatea etxean, ezin nuen, oso gaizki jartzen nintzen, entzuten nuen jarrita zegoela eta txoro bat bilakatzen nintzen eta noski, azkenean... ba azkenean oso erraza, kaskoak erosi zituen eta horrela konpondu da, gauza batzuk horren erraz konpondu dira (7.2. Paula, 31, harreman heterosexuala).

Nahiz eta, oro har, desadostasunak kudeatzeko estrategia argirik ez egon, hurrengo bikote honetan kudeaketa horretaz kontziente dira. Estrategia hori denbora eta distantzia hartzean datza, desadostasuna edo haserrea sortu duen gaitik aldendu eta, modu horretan, negoziatorako prest egoten dira, lasaitasun-egoera batetik abiatuta:

Bai, gatazkek egon dira, eta kudeatzen ditugu baina... nik uste dut gaizki, gaizki kudeatzen ditugula. Ez zait gustatzen tentsioa dagoen momentua, horregatik joaten nahiz, desagertzen naiz, damutzen naizen zerbait esan ahal dudalako. Orduan nahiago dut gaiaz ateratzea eta gero jada pasatzen zait (11.1. Javier, 45, harreman homosexuala).

Haren bikotekideak, bere aldetik, gatazken inguruan hurrengo aipatzen du:

Bai, batzuetan ailegatu gara momentu batera beldurra izan dudala, ez dut esan nahi beldur fisikoa, joko ninduela edo horrelako zerbait, baizik eta gatazka oso handi bat egotearen beldur eta orduan niri bai kostatzen zaidala asko gatazkek bideratzea (11.2. Iñaki, 30, harreman homosexuala).

Orain arte agertu ez den gaia mahaigaineratzen da testigantza horretan. Horrela, elkarrizketatuen artean konfrontazioa agerrarazteari buruzko beldurra inplizituki islatua agertu bada ere, berriemaileak horren inguruko gogoeta egiten du.

Aurreko bikoteak, negoziatorako estrategia gisa, gaia alboraturik uzten badu ere, jarraian aurkeztuko den bikoteak aurkakoa egiten du; izan ere, tentsioa gainditzeko eztabaida pizten dute, eta esateko duten guztia elkarri esaten diote. Elkarrizketatu honi eztabaidatzea ariketa osasuntsua iruditzen zaio, tentsioa erlaxatzeko egokia:

Esan beharreko guztia esaten dugu eta orduan tentsioa gutxitzea lortzen dugu, tentsioa ateratzen da, barkamena eskatzen dugu eta gure alabaren aurrean egiten dugu, ikusteko sana dela, gauzak eztabaidatu behar direla, eta batzuetan amore eman behar dela (9.1. Juan, 58, harreman heterosexuala).

Hurrengo elkarrizketatu honek arazo handiak izan dituztela dio, bikote homosexuala zirelako eta haien arteko adin-desberdintasuna handia zelako. Hori dela-eta, edozein krisiren aurrean euren harremanaren oinarriak berriro finkatu behar dituztela uste du, baina aukera gisa ulertuta, harremanaren nondik norakoak birplantzea ditzaketelako eta momentua baliatu gustatzen ez zaizkien gauzak aldatzeko:

Hainbeste kostatu zaigunez dena, krisi bakoitzean dena berriro hankaz gora jartzen zen eta zaila izan da, baina baita positiboa ere, krisi bakoitzean gure harremanaren nondik norakoak birplanteatzeko aukera izan dugulako, eta zer eduki nahi genuen, nolakoa... Hainbeste kostatu zaigu hau eraikitzea, asko zaintzen dugula (11.1. Javier, 45, harreman homosexuala).

Ikusi dugun moduan, oso kasu gutxitan kontziente dira elkarrizketatuak negoziazioetan erabilitako estrategiez eta, oro har, konfrontazioaz aldentzean datza.

## 5. Ondorioak

Ikerketa honen helburu nagusia parekideak diren (edo izan nahi duten) bikote-harremanetan gauzatzen diren negoziazio-prozesuak ikertzea izan da. Negoziatio-prozesu horiek (agerikoak, ezkutukoak, adosturikoak...) bikote-harremanetan garatzen diren eredu berriak eta, oro har, genero-harremanei dagokienez gizartean gauzatzen ari diren aldaketak ulertzeko ezin egokiagoak dira. Beste era batera esanda: negoziatioen bitartez bikoteetan gertatzen diren botere-harremanetara hurbildu gara, eta, horrela, eredu edo ezaugarri berriak azaleratzen ote diren aztertu dugu.

Maila sinbolikoan eta diskurtsiboan aldaketa handia sumatu badugu ere, eguneroko praktiketan ez da neurri berean gertatu. Zentzu horretan, negoziatioarako orduan oztopo garrantzitsuak topatzen dira. Alde batetik, genero-rolen sozializazioak emakumeen eta gizonen rolen irakurketa desberdindua ahalbidetzen du eta praktika eta betebeharrak desberdinduak justifikatzen ditu. Bestetik, eta aurrekoarekin lotuta, egungo maitasun erromantikoaren ideologiak negoziatio arazo edo zerbait problematiko bihurtzen du, eta, horrela, banakotasuna eta interes propioak defendatzea bikote-harremanaren kalterako dela uste da. Bi arrazoi horiek oztopo garrantzitsuak dira bikote-harremanaren barruan negoziatioak gauzatzeko garaian.

Hala ere, bikote-harremanen barruan negoziatioak izan dira, baina hein handi batean modu inplizituan, eta horrek haien eraginkortasuna murrizten du. Modu agerikoan hartzen ez diren erabakiak, oro har, genero-rol tradizionalen mesederako dira, «gustu pertsonal»-en edota «modu natural»-en irizpideak nagusi baitira prozesu horietan. Beraz, bikote-harreman parekideak gauzatzeko ageriko negoziatioak ezinbestekoak dira, eta elkarrizketatuen artean kontzientzia feminista garatuagoa dutenak<sup>8</sup> horretaz kontziente dira.

---

8. Oro har, talde feministetan militantzen edo militatu dutenez ari gara.

Elkarrizketatu gehienek negoziazio esplizituak aurrera eramaten ez dituztela eta gauzak modu «naturalen» ateratzen direla ziurtatzen dute. Akordio zehatzen inguruan galdetzean, negoziazioa egon badagoela ikus daiteke, horretaz oso kontziente ez izan arren. Ageriko negoziazioen gabeziaren ideia maitasun erromantikoaren ideologiaren kontra ez egiteko sortzen da. Negoziazioa, kontzeptualki nahiz praktika gisa, ez dago onarturik ezta zabaldurik ere bikote-harremanaren esparruan. Kasu askotan negoziazioak saihestu egiten dira, eta negoziazio-prozesuetan aurrera eramaten diren estrategia zehatzak ez dira plazaratzen, maitasun erromantikoaren idealarekin talka egiten baitu horrek. Salbuespena dira kontzientzia parekidea garatuagoa dutenak, kasu horietan negoziazioaren garrantzia azpimarratu eta praktikan jartzen baitute bikote-harremanaren esparru desberdinetan. Bikote heterosexualen kasuan, zehazki, emakumeen kontzientzia feministaren graduak erabakigarria dirudi. Era horretan, bikote-harremanaren eredu aldatu nahi izanez gero, negoziazioak esplizitatzeko ahaleginak egiten dira; izan ere, horrela egiten ez bada, ezkutuko erabakiak hartzen dira eta gerora horiek aldatzea zailago bilakatzen da.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko oztopo handiak egon arren, euren harremanetan erlazio bidezkoagoak garatzeko ahalegin garrantzitsuak burutzen dituzte bikote hauek. Hala ere, bikote-harremanaren esparru batzuetan beste batzuetan baino gehiago gauzatzen da parekidetasuna; beraz, parekidetasunak ez du modu homogineoan bikote-harremana osorik zeharkatzen.

Azkenik, bikote homosexualen eta heterosexualen arteko desberdintasunei dagokienez, zera aipatu behar dugu: bikote homosexualetan negoziatorako alde aurreko joera handiagoa dago bikote heterosexualetan baino; beraz, bikote parekideagoa bilakatzeko balizko aukera handiagoak dituzte. Bikote homosexualek euren harremanaren nondik norakoen inguruan gehiago eztabaidatzen dute eta negoziazioaren beharrez kontzienteagoak dira. Bikote heterosexualetan, aldiz, bi kideak ez dira neurri berean negoziatorako prest agertzen, emakumeak izan ohi dira negoziazioen beharrez kontzienteago agertzen direnak eta maizago planteatzen dituztenak.

## Erreferentziak

- Bauman, Z. (2008): *Amor líquido, acerca de la fragilidad de los vínculos humanos*, Fondo de Cultura Económica de España, Madril.
- Beck, U. eta Beck-Gersheim, E. (2001): *El normal caos del amor. Las nuevas formas de la relación amorosa*, Paidós Contextos, Bartzelona.
- Beltrán, M. in: García, M.; Ibáñez, J eta Alvira, F. (2000): *El análisis de la realidad social: métodos y técnicas de investigación*, Alianza, Madril.
- Bourdieu, P. (2000): *La dominación masculina*, Anagrama, Bartzelona.
- Cea, M.A. (2007): *La deriva del cambio familiar. Hacia formas de convivencia más abiertas y democráticas*, CIS, Madril.
- Coria, C. (2004): *El amor no es como nos lo contaron... ni como lo inventamos*, Paidós, Buenos Aires.
- , (1997): *Las negociaciones nuestras de cada día*, Paidós, Buenos Aires.

- Dema, S. (2004): «La desigualdad y las relaciones de poder en el ámbito privado: análisis de parejas con dos ingresos desde una perspectiva de género», doktore-tesia, hemen eskuragarri: <<http://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/111105/UOV0008.pdf;jsessionid=DA19B95EBE6975AC4E60E57218813D19.tdx2?sequence=1>> [2014/11/27an kontsultatua].
- Esteban, M.L. (2011): *Crítica del pensamiento amoroso*, Edicions Bellaterra, Bartzelona.
- García de León, M.A. (1994): *Élites discriminadas: sobre el poder de las mujeres*, Anthropos, Bartzelona.
- Herrera, C. (2011): *La construcción sociocultural del amor romántico*, Editorial Fundamentos, Madril.
- Hite, S. (1988): *Mujeres y amor: nuevo Informe Hite*, Plaza&Janés, Bartzelona.
- Lagarde, M. (2005): *Para mis socias de la vida*, horas y HORAS, Madril.
- Langford, W. (1999): *Revolutions of the heart. Gender, Power and the Delusions of Love*, Rotledge, New York.
- Luhmann, N. (2008): *El amor como pasión*, Península, Bartzelona.
- Royo, R. (2011): «Valores sociales y división sexual del trabajo en las familias españolas: permanencias de género y cambio social», *X Congreso español de Sociología-n aurkeztutako komunikazioa*, hemen eskuragarri: <<http://www.fes-web.org/uploads/files/modules/congress/10/grupos-trabajo/ponencias/435.pdf>> [2014/1/27an kontsultatua].
- , (2004): «Trabajo doméstico desde la perspectiva de género. Estudio cualitativo», in M.L. Setién (koord.), *Problemas de la mujeres, problemas de la sociedad*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 181-192.
- Subirats, M. eta Castells, M. (2007): *Mujeres y hombres. ¿Un amor imposible?*, Alianza Editorial, Madril.
- Valcárcel, A. (2008): *Feminismo en el mundo global*, Cátedra Feminismos, Madril.
- Wiesmann, S. (2008): «‘Not worth mentioning’: The implicit and explicit nature of decision-making about the division of paid and domestic work», *Community, Work & Family*, **11(4)**, 341-363.



